

IRABAZI-ASMORIK GABEKO ERAKUNDEEI UDAL LOKALAK ERA PREKARIOAN LAGATZEKO OINARRIEN ORDENANTZA ARAUTZAILEA

LEHENENGOA.- Lagapen berriak egiteko, elkarte eskatzailearen edo eskatzaileen helburu sozialaren arabera, eskumena duen sailak edo arloak honako eskakizun hauek betetzeko eskatuko du:

- a) Elkarte eskatzaileak edo eskatzaileek Elkartearen Estatutuak eta dagokien oharra, Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatuak daudela adieraziko duena, aurkez ditza(te)la.
- b) Estatutuak Elkarteen Udal Erregistroan inskribaturik egon daitezela; edo hori ezean, horretarako eskaria aurkeztu dela egiaztatzea.
- c) Urteko jarduera azaltzen duen txostena aurkeztua izatea; edo sortu berria den elkarte bat baldin bada, urtea amaitu arte egingo dituen jardueren berri emateko txostena aurkeztea.
- d) Elkarteen helbide soziala Basaurin egon dadila, edo bere jarduera, batez ere, basauriarrei zuzendua egon dadila.

BIGARRENA.- Aurretik aipatu diren baldintzak bete direla egiaztatzen denean, gaiaren arabera eskumena duen udal sail edo arloak Ogasun eta Ondarearen Batzorde Informatzaileari irizpena helaraziko dio, honako hauek barnean adierazita:

1.- Elkarte eskatzailearen edo eskatzaileen aldeko lagapena egiteko proposamena; elkarte horren edo horien helburu, xede sozial edo ordezkaritza aintzat hartuta, onura publikokoa edo interes sozialekoa izango dela jotzen baldin bada.

2.- Dauden lokalen ezaugarriak kontuan izanik, arlo edo sail bakoitzak elkarte horri edo horiei lokalak lagatzeko aukera proposatuko du, elkarteak edo elkarteek bertan bere jarduera gara deza(te)n.

HIRUGARRENA.- Udal sail edo arlo espezializatuaren txostena aztertu ondoren, Ogasun eta Ondarearen Batzorde Informatzaileak lagapen-proposamena bidaliko dio Udalbatzari, legeak eskatzen duen bezala egina; eta organo horrek, kasuan kasu, prekarioan lagako du, Udalbatzako kideen kopuru legalaren gehiengo absolutuaren aldeko boto bidez.

LAUGARRENA.- Lagapenak irauten duen bitartean, udal lokala erabiltzen duen elkarteak lokalaren funtzionamendu- eta jarduera-gastu arrunt guztiak hartu beharko ditu bere gain (telefonoa, berogailuak, argindarra, ura eta abarrak ordaintzekoak). Horrez gain, garbitasun- eta mantentze-lanak egiteaz arduratuko da, lokala garbi eta txukun egon dadin.

BOSGARRENA.- Dagokion udal sail edo arloak egiaztatu beharko du lokala erabiltzen duen elkarteak beraren helburu edo xede sozialaren jarduerak garatzeko erabiltzen duela; eta hori edozein unetan ikuskatu ahalko du.

Halaber, dagokion arlo edo sailak egiztatuko du elkarte onuradunak jarduerari buruzko urteko txostena araututako epeetan arlo edo sail horretan

aurkeztu duela; eta, horrekin batera, elkarteari diru-laguntzarik eman bazaio, elkarteak diru-laguntza modu egokian erabili duela ziurtatzen duen gastu-agiria ere egiaztatuko du.

SEIGARRENA.- Elkarte batek aurreko oinarri-arauan azaldutako baldintzak eta eskakizunak betetzen ez baditu, eskumena duen udal sail edo arloak administrazio-espeditentea egingo dio, bai eta elkarte interesdunari entzunaldia eman ere. Horren ondorioz, lokalaren lagapena kentzeko ziozko proposamena egin ahalko du; Ogasun eta Ondarearen Batzorde Informatzaileak aztertuko du eta Udalbatzak ebatziko.

ZAZPIGARRENA. Beste edozein erabilera publiko edo gizarte-interes dela-eta, eskumena duen udal sail edo arloak lagapena amaitzeari egoki baderitzo, Seigarren oinarri-arauan aurreikusitako prozeduraren arabera espeditentea egin ahalko du.

ZORTZIGARRENA.- Ogasun eta Ondarearen Batzorde Informatzaileak irabazi-asporik gabeko elkarte pribatuei lagatako lokalen erabilerari buruzko edozein datu eskatu ahalko die sail edo arlo eskudunei une oro. Urteko lehen hiruhilekoan, arlo eskudunek euren esparruko elkarteek erabiltzen dituzten lokalei buruzko txosten-zerrenda bat bidaliko dute, eta lagapenak jarrai dezan bidezkoa denetz adieraziko; eta nolanahi ere, arestian azaldu den guztia beteko da.

BEDERATZIGARRENA.- Aurreko oinarri-arauetan xedatutakoaz gain, lagapena amaitzeko berariazko arrazoitzat hartuko da, betiere, aldeztatik jakinarazita eta interesdunari entzunaldia eman ondoren, lokalaren eta jardueraren funtzionamendu-gastu arrunt guztiak, Laugarren oinarri-arauan aipatutako garbitasun- eta mantentze-gastuekin batera, elkarteak bere gain ez hartzea.

HAMARGARRENA.- Lagapenen ordena egokia lortze aldera, Ogasun eta Ondarearen Batzorde Informatzaileak, aurretiko txosten egokiak egin ondoren, arlo espezializatuak jakinaraziko die zein lokal dagoen libre, non dagoen eta nolako barne-banaketa duen.

Basauriko Udaletxea, 1994ko abuztuaren 10a.